

Suspertu kanpaina abiarazi dute, Tolosa biziberritzeko

«Krisiak gehien kolpatu dituen sektoreak babestea» du helburu ekimenak, eta ateak itxi behar izan dituzten komertzioei lagunduko zaiei, salmenta-bonuen bitartez //2

Ibarrako komertzioak laguntzeko kanpaina hasi dute

Lauburu Kirol Elkarteak itxita egon diren ostalariei eta komertzioei laguntzeko 'Nik herrian, zuk?' kanpaina jarri du martxan; diru ekarpena egin ahalko da ekainaren 19ra arte //3

Etxebarrietari giza eskubideak urratu zizkiotela aitortu dezaten

Bere sendiak tramiteak abiarazi ditu; Bentaundin hil zuten 1968ko ekainean eta sendiak uste du menderatu eta armagabetu ondoren exekutatu zutela //5



ENERITZ MAIZETXARRI

«Oso zaila izango da, baina etxean ere ezin zara geratu, saiatu behar da»

IVAN VELAZ GONZALEZ OSTALARIA

Adunako Uztartza jatetxeak atzo zabaldu zituen ateak; hainbeste denbora itxita izan eta gero, erronka berria dela diote, baina ez direla oso baikorrak //5

**Tolosa
suspertzeko
kit-a**



bonoen bidez bertako
saltokietako kontsumoa
sustatzeko kanpaina
#suspertutolosa

www.suspertutolosa.eus



1.900 bonu baino gehiago saldu dira

147 saltokik eman dute izena Suspertu Tolosa kanpainan. 7.118 erosketa-bonu jarri ziren salgai ostiralean, eta jada laurdenak saldu dira; hilaren 29ra arte dago aukera.

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Herriko eragile ekonomikoekin bildu eta egoeraren diagnosia egin ostean, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko plana garatzeari ekin dio Tolosako Udalak. Horretarako, lehen urrats moduan, Suspertu Tolosa kanpaina jarri dute abian, herria sozialki, ekonomikoki eta kulturalki biziberritu, eta krisiak gehien kolpatu dituen sektoreak babesteko asmoz.

Nerea Letamendia, Merkataritza, Azokak eta Turismoa Saileko zinegotzi arduradunak azaldu duenez, «ateak itxi behar izan dituzten tokiko establezimenduei bultzada emateko sortu da kanpaina, eta merkataritza eta zerbitzuen sektorea izango da proiektuaren lehen lan-ildoak».

Horretarako, eta Tolosa&Co-ekin lankidetzan, tokiko establezimenduetan kontsumitzeko erosketa-bonuak jarri dira herriarren eskura. «Beharrezkoa zen udaletik horrelako proiektu bat aurrera eramatea», adierazi du Letamendiak. Aurrez, kanpainan parte hartzeko prest zeuden establezimendu eta zerbitzuak zeintzuk ziren jakin nahi zuten. Bada, 147k eman dute izena (www.ataria.eus webgunean ikus daiteke zerrenda). «Guztiak ere, anitzak dira; gehienak arropa dendak eta osagarrienak».

BONUEN LAURDENAK EROSITA

Guztira 7.118 bonu jarri ziren salgai, ostiralean, www.suspertutolosa.eus webgunean. Hasieratik zehaztu behar da bonuak zein saltokitan erabiliko diren, eta ezin da aldatu. Saltoki bakoitzeko bonu bakarria erosi ahal du pertsona batek, eta gehienez ere,



Maburu ileapaindegia da kanpainan izena eman duen saltokietako bat. J.M.

lau bonu erosi ahal dira pertsonako; erosketa prozesu bakoitzeko, berriz, bonu bana lortu ahal da. Bonua erosterakoan NAN zenbakia eman behar da, eta saltokietan ere nahitaezkoa izango da NANA erakustea.

Bonuak erosi ondoren, posta elektronikoz jasoko dira eta horiek inprimatu egin beharko dira dendetan erabili ahal izateko. Erosketa egin den unetik 24 ordu pasatakoan aktibatuko da bonu bakoitza, eta une horretatik aurrera izango da erabilgarri, 2020ko abenduaren 31ra bitarte.

10, 20 eta 30 euroko bonuak erosi ahal dira, eta bonuei diru gehiago gehituko die udalak, 5, 10, eta 15 euro, hurrenez hurren. Hortaz, 15, 30 eta 45 eurokoak izango dira. Udalak 80.000 euro bideratu ditu ekimen honetara, eta egitasmoaren inpaktu ekonomiko erreala 240.000 eurokoa izatea aurreikusten dute. «Horrela, udalak saltokiei diru bat aurreratzeko aukera izango du», azaldu zuen zinegotziak.

Bada, lehen egun hauetan, herriar askok egin dute bat deialdiarekin, eta dagoeneko saldu da bonuen laurdena. Atzo goizera arte, 1.900 bonu baino gehiago saldu ziren. Modu horretan, herriarren erantzuna txalotu eta eskertu nahi izan du udalak. «Aurreikuspen guztiak gainditu dira hasiera honetan. Izugarria izan da herriarregandik jaso dugun lehen erantzuna».

Bat-bateko erantzunak, baina, arazoak sortu ditu; webguneko zerbitzua etenda egon da zenbait unetan. Udaletik diotenez, ordea, «jada arazo guztiak konpondu dira». Maiatzaren 29ra arte izango da, gehienez, bonuak erosteko aukera, lehenago agortzen ez badira behintzat.

<<GURE BIZILAGUNAK>>

Proiektuak herriarrek bidelagun izan behar dituela azpimarratu du zinegotziak. «Kanpainak ez du zentzurik, herriarren inplikazioa, konpromisoa eta elkartasuna lortzen ez bada. Izaera soziala izango du. Gure saltokiak, gure bizilagunak ere badi-relako, kaleak bizirik mantentzen ahalegindu behar dugu. Gaurko, biharko edota etziko keinua, izan dadila ekonomia berpizteko pauso motz bat».

Era berean, herriarrei arduraz eta zentzuz jokatzeko dei egin die zinegotziak. «Urduritasuna nabaria da, ez-jakintasuna ere handia da. Pazientzia izan dezaten eskatzen diegu. Errealitatea gordina den arren, orain arteko erantzuna oso ona izan da».

Letamendiak berretsi du herriarren parte hartzea ezinbestekoa izango dela. «Orain inoiz baino gehiago jarri behar ditugu balioan gure herriak berezkoak dituen ezaugarriak, horiek babestuz. Horregatik, merkataritza gain, sektore gehiagori eskainiko zaie laguntza».

14 positibo berri azken egunetan

Erredakzioa

Igande iluntzeko 20:00ak arteko datuak kaleratu ditu Osasun sailak. Bertan adierazten duenaren arabera, Tolosan eta Villabonan atzeman dituzte azken kasuak. Azken hiru egunetan, 14 kasu berri egon dira.

Orain arte, zenbaketak hasi zituztenetik, eskualdean 247 herriar zenbatu dituzte Covid-19arekin. Asuncion klinikan, berriz, gaixorik ospitaleratu gabe

jarraitzen dute, Osasun Sailetik esan dutenez.

Hona hemen, koronabirus kasuen kopuruak, eskualdeko herrietan: Tolosan 125, Amasa-Villabonan 33, Ibarra 24, Iruran 17, Anoetan 14, Zizurkilen 6, launa Alegian eta Asteasun, hiruna Altzon eta Bidania-Goiatzen, Adunan, Alkizan, Amezketan, Belauntzan eta Hernialden bina, eta Albizturren, Berastegin, Leaburu-Txaraman eta Lizartzan bana.

Covid-19rik ez, Iurreamendin

Maiatzaren 7a gorritz borobildu dute Iurreamendiko langile, egoiliar eta senitartekoek; COVID-19 birusarekin kutsatu gabeko lehen eguna izan da

Rebeka Calvo Tolosa

Espainiako Gobernuak martxoaren 14an ezarri zuen Alarma Egoera, eta ordutik une latzak pasa dituzte Iurreamendi egoitzan. Kutsatu eta hildakoen kopuruak gora egin zuen eta egoiliar, langile eta senitartekoen kezka areagotu zen ere. Ostegunean, maiatzak 7, izan zen kutsaturik gabeko lehen eguna zaharren egoitzan, bertan aritzen diren lasaitasunerako.

Martxoaren 14an ezarri zuten Alarma Egoera, baina martxoaren 6an bertan hasi ziren bisitak mugatzen. Martxoaren 13an hasi ziren egoitzako eremuak banatzen, izan ere langileetako baten senitarteko batek positibo eman zuen. Gipuzkoako Foru Aldundia martxoaren 19an hasi zen bere sareko egoitzetako kutsatu eta hildakoen berri ematen eta egun horretan lau positibo zeuden Tolosako egoitzan. Martxoaren 21erako lau gehiago zeuden, eta lehen hildakoen berri, zenbatekoa zehaztu gabe, martxoaren 31n eman zuen Foru Aldundiak. Hori baino lehenago, martxoaren 24ean, suhiltzaileak bertaratu ziren egoitza desinfektatzeko.

Aste gogorak igaro dituzte, batez ere, azkenak. Kutsatuak,

hildakoak, salaketak... abiadura handian pilatu dira albisteak. 141 egoiliarretatik 55 kutsatu eta 15 hil dira; 137 langileetatik, berriz, 22 kutsatu ziren. Baina datu horiek atzean utzita, lanean jarraitzen dute.

Babes neurriak hartu ez izana, edo behintzat garaiz ez hartu izana leporatu zaie egoitzako arduradunei, tartean Gipuzkoako Foru Aldundiari, Kabia sarearen bidez, zentroko kudeatzailea delako. ELAk salaketa jarri zuen, eta Donostiako Lan Arloko Epaitegiak atzera bota zuen apirilaren 24an. Epaitegiak frogatutzat jo zuen martxoaren 20rako COVID-19a zuten egoiliarrekin aritzen ziren erizainek eskularru bikoitzak edo luzeak, mantal iragazgaitzak, maskara kirurgikoak edo FFP3ak eta betaurrekoak ziztuztela, eta gainerako langileek eskularruak, mantal erdi-iragazgaitzak, eta FFP3ak ziztuztela. Sententziak dio ere martxoaren 19an hasi zirela probak egiten eta apirilaren 20rako langile guztiei egin zizkietela. Ordurako hasiak ziren ere egoiliarrei probak egiten eta apirilaren 21erako egin zizkieten guztiei. Norbere babesarako ekipamenduen azken hornitzeak apirilaren 10 eta 16an egin zituzten.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zaintza. Umeak zaintzeko edota adin guztietarako klase partikularak emateko emakume arduratsua eskaintzen da. Interesatuak deitu 650 890 329 telefonora (Leire).

Tolosako EH Bilduk krisiari aurre egiteko proposamena aurkeztu du

Egoera zaurgarrienean geratu diren herritarrak zein tokiko ekonomiaren sektore ezberdinak jarri dituzte erdigunean

I.S.A. Tolosa

Tolosako EH Bilduk Covid 19 krisiaren ondorioei aurre egiteko proposamena garatu eta aurkeztu du. Kontuan hartzeko lan le-roak proposatu dituzte, egoeraren diagnostikotik hasi eta esku hartze planeraino. EH Bilduren helburu nagusia, egoera zaurgarrienean gelditu diren herritarren beharrei erantzutea izango da. Horretarako, esku hartze plan proposamena luzatu diote udal gobernari, bozeramaileen bileran aipatuta eta ofizialki erregistratuta.

Epe motzean zein ertainean kontuan hartzekoak izan daitezkeen lan lerro eta laguntzak proposatu dituzte, baita luzera begirakoak ere. Aurrekontuen egokitzapena eta esku hartze plana garatzerakoan, udal gobernuarekin «lehentasunak markatu eta eztabaidatzeko asmoz» egin du proposamena EH Bilduk, «krisi honetatik ahalik eta ondoren irteko denon elkarlana ezinbestekoa» dela iritzita.

Egoera zaurgarrienean geratu diren herritarrei oinarritzko laguntzak bermatzeaz gain, tokiko ekonomiaren sektore ezberdinei babesa eta laguntza ematea ere helburu nagusitzat jo dute. Era berean, krisiaren beste hainbat alderdi ere kontuan hartzekoak direla eta erantzun egokia behar dutela uste dute: besteak beste, indarkeria matxistaren gorakada, arazo psikologikoen gorakada, kultur ekitaldien eta festen berrazterketa eta kultur eragile- en egoera zerrendatu dituzte.

Horiek guztiak aztertzeko, herrian duten errealitatearen diagnostiko bat egitea ikusi dute egokien, eta jarraian, udalaren baliabide ekonomikoak berraztertzea proposatu dute. Ondoren, esku hartzea gertatuko litzateke, antzeman dituzten beharriaznei erantzuteko erronkak zehaztu eta ekimen bihurtzeko.

Proposamena modu zabalagoan ikusi nahi duenarentzat *tolosa.ehbildu.eus* helbidean zintzilikatu dute.

‘Nik herrian, zuk?’ kanpaina abiatu dute, komertzioen alde

Lauburuk jarri du martxan egitasmoa, itxita egon diren Ibarako ostalariei eta komertzioei laguntza emateko; ekainaren 19a bitarte egin ahalko da diru ekarpena

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarako komertzioei itxialdiak eragindako kalteak arintzeko *Nik herrian, zuk?* kanpaina abiarazi du Lauburu Kirol Elkartek. Konfinamenduagatik ireki ezinik geratu diren Ibarako ostalariei eta komertzioei laguntza ekonomikoa eskaini nahi diete, eta horretarako, diru bilketa kanpaina bat jarri dute martxan. Aitzol Oiarbide zuzendaritzako kideak azaldu duenez, «Lauburu herriko parte denez interesatzen zaigu komertzio txikiak herrian mantentzea; haien aldetik oso babestuak sentitu izan gara beti, eta uste dugu orain gure momentua dela beraiei laguntzeko».

Lauburuk areto futbol eskolaren eta klubaren oinarria osatzen duten taldeen matrikularen %30a helburu horretara bideratuko du. Oiarbidek azaldu duenez, ordea, lehenik familiei eskaini zitzaizen matrikularen portzentai hori ea bueltan jaso nahi zuten, izan ere, «dirua beraiena zen, Lauburuk ez zuen zertan



Ibarako merkatariei laguntza eskaini nahi die Lauburuk. ATARIA

diru hori mantendu». Hala ere, gehiengoak kanpainara bideratu duela adierazi du.

Baina gainerako herritarrek ere izango dute aukera ekarpenak egiteko, izan ere, ekainaren 19a bitarteko epean 12.000 euro biltzea da antolatzaileen nahia.

Beraz, herritarrei dei egin nahi diete bakoitzak bere ekarpen txoa egin dezan. Hiru bide ezarri dituzte diru bilketa egiteko: batetik, *itsulapikoa.eus* helbidean,

Ibarako komertzio txikiaren aldeko elkartasun eta laguntza proiektua agertuko da, eta hor barnean sartuta, zenbateko ekarpena egin nahi den aukera daiteke: 20, 50 edo 100 eurokoa; bestetik, honako kontu korrante zenbakira transferentzia bat egin daiteke: ES46 3035 0141 83 1410008604; edota azkenik, *Bizum* bidez egin ahalko du bakoitzak bere ekarpena, 690 778 656 telefono zenbakira bidalita.

Etxez etxe maskarak banatu dituzte Leaburun

I.S.A. Leaburu-Txarama

Udal langileak etxez etxe ibili ziren maskarak banatzen, ostiralean, Leaburu-Txaraman. Maskarekin batera, gomendioak gogoraratzeko informazio orriak ere banatu zituzten. Joxe Ramon Eizagirre alkateak azaldu duenez, eroldari begira egin dute maskaren erosketa, eta haurrentzat egokitutako maskarak merkatuan ez dituztenez aurkitu, begiratzen jarraituko dutela esan du, eta lortzen dituztenean banatuko dituztela.

Udala, 0 fasearekin batera, herriko txokoak desinfektatzen ere aritu da. Besteak beste, autobus geltokia, eta plaza ingurua desinfektatu dituztela esan du Eizagirrek. Era berean, frontoia eta parkea itxita mantentzea erabaki dute: «Nahiz eta legeak bestelakoa esan, guk segurtasunez jokatu nahi dugu eta gauzak hobeto ikusi arte, erabaki egokiena dela uste dugu itxita mantentzea, jende pilaketak gerta ez daitezen».

Bide batez, gogorarazi du udal eraikin guztiek itxita jarraituko

dutela egoerak ahalbidetzen duen arte, eta udaleko zuzeneko arreta zerbitzua telematikoki eskaintzen jarraituko dutela. Udalarekin harremanetan jartzeko 943 67 59 31 zenbakira deitu daiteke edota *udala@leaburutxarama.eus* helbidera idatzita egin daiteke bestela.

Herritarrei zaintzeko deia luzatu nahi izan die alkateak, eta neurriak denek har ditzatela eskatu du: «Orain derrigorrezkoak diren arren, gerora ere ohitura gisara epe luze batean mantentzea beharrezkoa ikusten dugu».

Alurr dantza taldeak 25. urteurreneko abestia kaleratu berri du

Erredakzioa Ibarra

Aurten beteko ditu Alurr dantza taldeak 25 urte. Urteurrena ospatzeko, taldeak abesti bat kaleratu du bere sare sozialetan. Osasun larrialdia dela eta, bideoklip konfinatua egin dute momentuz, eta etxe barruan grabatutako bideo zatiekin, bi bideo osatu dituzte. Izan ere, azaldu dutenez, parte hartzeak izandako «arrakasta» ikusita bi zatitan banatu behar izan dituzte irudiak. Taldekoek adierazi dutenez, ordea, kalera ateratzeko aukera dutenean bideoklip ofiziala grabatuko dute.

Eli Pagolak idatzitako letrei Manex Torrealdaik jarri die trikitiarekin doinua. Mikel Sanchez arduratu da bateria, gitarra eta baxua jotzeaz eta abesten honako kideak aritu dira: Kattalin Zubizarreta, Oihane Sarasola, Leire Romero, Mara Odriozola eta Izaro Urrestarazu.

Maiatzaren 31ra arteko epea, Elduaingo argazki rallyan parte hartzeko

Erredakzioa Elduain

Elduaindarren argazkilari sena agerian jarri nahi du udalak, eta horretarako argazki rallya jarri dute martxan. Parte hartzaile bakoitzak hiru argazki egin ahalko ditu, maiatzaren 31 baino lehen.

Bi kategoria bereizi dituzte: 14 urte artekoak eta handik gorakoak. Argazkietarako gaia *Ni etxean geratu naiz* izango da. Argazki bakoitzak bere izenburua izan beharko du, eta *elduainargazkiak@gmail.com* helbidera bidali beharko dira.

Kategoria bakoitzean hiru sari banatuko dituzte: irabazlearentzat Elkar liburu dendan gastatzeko 60 euroko balea, bigarrenarentzat 30 euroko balea, eta hirugarrentzat Topicerako 5 sarrera. Gainerakoan, parte hartzaile guztien artean, Topicerako beste 5 sarrera zozketatuko dira. Argazki guztiekin erakusketa egingo dute herriko jaietan.

15 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa antolatu dute bigarren aldiz Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian, eta denera, 13 parte hartzailearen argazkiak jaso dituzte aurten.

Txikitasunean handi

Erredakzioa Zizurkil

Legoko figura txikiekin, eguneroko eszenak islatzen dituzten argazkiak egitea zen lehiaketaren helburua. Antolatzaileek esan dutenez, parte hartzea ez da uste bezain zabala izan baina, hala ere, «positibotzat» jo dute ekimena, jasotako argazkien kalitatea «oso ona» izan delako.

«Ezohiko baldintza honetan, ezin izan dugu zenbait gaztegunerekin pentsatuta genuen elkarlana egin eta horrek asko mugatu du parte hartzea», aipatu dute Zizurkilgo liburuzainek. «Saria eskuratu duten argazkiekin batera badira beste hainbat eder, eta agian, egoerak laguntzen badu, argazki guztiekin, iraila aldera, erakusketa bat jarriko dugu Plazida Otaño Liburutegian».

Aurreko astean eman zituzten ezagutzera *Txikitasunean handi* lehiaketako irabazleak. 100na euro jaso dituzte Irantzu Urkola 22 urteko zizurkildarrak eta Maren Urkizu 17 urteko lasartearrak. Hurrenez hurren, lehenak Aiztondoko saria jaso du eta bigarrenak bailaratik kanpokoena. Gainera, Fotoprix-ek lagundu duenez lehiaketa, etxe horren produktuetan 30 euro gastatzeko txartela eskuratu dute Alaitz Arrese 20 urteko lasartearrak eta Amaia Harto 21 urteko hernaniarrak.

Plazida Otaño liburutegiak egunotan sare sozialetan zabaldu ditu lehiaketara aurkeztu eta saria irabazi duten argazkiak.

MUNSTROEN LEHIAKETA

Bestalde, Plazida Otaño liburutegiak konfinamenduan beste lehiaketa bat ere jarri du martxan, *Lego familian* izenburupean. Familia giroan, legoko piezekin koronabirusarekin bukatuko duen munstroa, robota edo tramankulua eraikitzea eskatu zuten liburutegitik. 33 familiak hartu dute parte eta 50etik gora munstro edo tramankulu jaso dituzte. Oinarrietan, irudimena erabiltzea baloratzen zuten eta Plazida Otaño liburutegitik zenbait pieza saritu dituzte.



Irantzu Urkola 22 urteko zizurkildarrak jaso du Aiztondoko bailarako saria. ATARIA



Bailaratik kanpokoan lehen saria Maren Urkizu lasartearrak eraman du. ATARIA

LIBURUEN IZENBURUEKIN KONTAKIZUNAK

Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiak konfinamendu garaian ere jarraitu du ekimenak sustatzen. Etxealdirako erronka proposatu zuten irakurleei martxoa erdialdera eta orain eman dituzte ezagutzera lehiaketaren emaitzak.

Euskarazko liburuaren izenburuekin kontakizun laburrak sortzea eta bideo bat grabatzea zen erronka. 12 pertsonak hartu dute parte, eskualdekoak gehienak, baina baita Tolosaldeko kanpokoak ere. Liburuzainek aipatu dutenez, oso zaila egin zaie saria ematea. «Adituei bi-

dali genien eta azkenean, denetatik zazpi saritu ditugu», nabarmendu dute.

Liburu sorta bat jasoko du sari-dun bakoitzak. Astelehenero, Plazida Otaño liburutegiko sare sozialetan zintzilikatuko dituzte bideoak. TOLOSALDEKO ATARIA web gunean ere ikusgai dago, Bakartxo Urruzola gasteiztarrek osatutako kontakizuna.

Hauek dira Plazida Otaño liburutegitik sustatu duten lehiaketan parte hartu eta nabarmendu dituzten kontakizun laburren egileak: Bakartxo Urruzola (Gasteiz), Maren Urkizu (Lasarte), Larraitx Uría (Hernani), Oihana Iguaran (Amasa), Lurdes Gorostegi (Zizurkil), Idoia Barandiaran (Zizurkil) eta Maialen Zazpe (Lizartza).

Atxaga finalista geratu da 111 Akademia Sarian

Karmele Jaioaren 'Aitaren etxea' lanak jaso du aipamena eta asteasuarraren 'Etxeak eta hilobiak' eleberria izan du lehiakide azken bozketa txandan

Erredakzioa Asteasu

111 Akademiak Karmele Jaiori emango dio 2019ko 111 Akademiaren Saria. Akademiakideek Jaioren *Aitaren etxea* eleberria izendatu dute 2019ko libururik gogokoen. 201 akademiakide ditu une honetan 111 Akademiak, eta horietako 114k parte hartu dute sariduna izendatzeko urtarila eta apirila bitartean burututako hiru bozketa txandetan. Txanda guztietan Jaioren eleberria izan da bozkatuena, eta Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* eleberria izan du lehiakide azken bueltan. Asteasuko idazleak 2003an jaso zuen saria *Soinujolearen semea* nobelagatik.

Une honetan aurtengo sari-banaketaren nondik norakoak aztertzen ari dira 111 Akademiako arduradunak. Edizio bakarra baino ez zaio falta irakurleek hautatu eta ematen duten sari honi mende laurdena betetzeko. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 1996an jarri zuen abian Beterriko Liburua literatura aipamena (gerora 111 Akademiaren Saria bihurtua) euskal irakurlea-

ri literaturaren plazan hitza eta protagonismoa eman asmoz.

BIGARRENEZ SARIDUN

Jaiok ez du 2019koa lehenengo 111 Akademiaren Saria izango. 2006an ere jaso zuen irakurleen aipamena *Amaren eskuak* eleberriatik. Hala, 111 Akademiaren Saria bi aldiz jaso duten idazleen taldean sartu da Jaio, bera delarik, oraingoz, taldetxo horretako emakume bakarra: Ur Apalategi, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Harkaitz Cano dira berekin batera irakurleen sari hau bi aldiz irabazi duten idazleak.

Maskulinitatea eraikitze eta transmititzeko moduez eta orokorrean generoak emakume eta gizonen bizitzetan duen eragin itzelaz ari da Jaioren *Aitaren etxea* eleberria. Baita familietan sortzen diren isiltasun esanguratsuez ere. Bere nobela «anbizio-tsu eta ausartena» burutu du Jaiok, «lurralde ezezagun batean barneratuz eta bertatik arrakastaz itzuliz». Akademiakide batek aipatu bezala, «literatura heldutasunera iritsita» aurkituko du irakurleak lan honetan.

Maiatza Saltsan-en ez da jendaurreko ekitaldirik izango

ZIZURKIL // Osasun krisi honen egoerak baldintzatuta, aurten ez da kultur hilabete nagusia izan ohi den Maiatza Saltsan egingo. Herria ezagutzeko gonbita egin dute udaletik horretarako prestatu diren ibilbideak erabilita. Hernandorena elkarteak proposatutako beste bi ibilbide aurkeztu dituzte: Irizibarko karobia eta Atxulondoko bira.

Poltsa konpostagarrien makina, zabalik

AMASA-VILLABONA // Hondakin organikorako poltsa konpostagarriak doan hartzeko makina berriro ere zabalik dago. Makina goitik behera desinfektatua izan da. Herritarrei arduraz erabiltzeko deia luzatu diete udaletik: «Mesedez, poltsak hartu aurretik eskuak garbitu makinaren ondoan ezarri den alkoholduen xaboia erabiliz».

«Erronka berri bat da eta ilusioa dut, baina ez naiz oso baikorra»

IVAN VELAZ GONZALEZ
OSTALARIA

Adunako Uztartza jatetxea eta ostatuaren ardura du beste bi bazkiderekin batera Velazek; atzo ireki zuten tabernako terraza eta eramateko janaria ere prestatzen dute.

Eneritz Maiz Etxarri Aduna

Adunako Uztartza jatetxeak atzo zabaldu zituen ateak. Elizako arkupean ditu terrazako mahaiak, eta momentuz, herritarrei edota herrian lan egiten dutenei otordua eramateko aukera eskaintzen ari dira. Hiru bazkidek darimate negozioa aurrera, eta hirurak hasi dira lanean, langilerik gabe. TOLOSALDEKO ATARIA-k Ivan Velazekin hitz egin du.

Nola hartu zenuten negozioa ixteko agindua, eta nola bizitu duzue?

Albistea bat-batean iritsi zen. Inork ez genuen espero gertatu dena gertatzerik, eta oraindik ere ez dakigu zenbaterainokoa izango den. Gogoan dut larunbat goizean lanean nengoela, eta arratsaldean itxi egin genuela. Hasiara batean, esan zen moduan, hamabost eguneko kontua izango zela pentsatzen genuen, eta zerbait luzatuko zela ikusten bagenuen ere, ez genuen uste hainbeste luzatuko zenik.

Behin jatetxea itxi, eta zer?

Tarteka etorri gara. Galtzekoak ziren janariak bota, eta posible zena izoztu egin genuen.

Luze egin da itxiera?

Luze egiten da, batik bat, ez dakizunean zer egin. Aurrera egiteko biderik ikusten ez ditzunean egiten da luze, eta langileak dituzunean. Gu hiri bazkide autonomo gara, baina beste bost langile ditugu. Beraietaz ere kezkatu behar duzu. Zerbait eskaini nahi diezu, ea zer egongo den,... eta gauza guzti horiek ez jakitean eta zalantzak izatean, gogorra da.

Gogotsu ireki duzue berriz taberna?

Hainbeste denbora itxita egon ostean, nolabait esateko, beti dago ilusioa. Erronka berri bat da, egoera ezberdina da eta ilusioa dugu, baina, egia da ez naizela oso baikorra. Hitz egiten ari diren baldintzak ez dira onak, eta ez dakigu nora iritsiko garen. Normalean, jatetxe bat bere osotasunean ari denean justu dabil edo ondo dago. Baina lan egiteko

%50a kentzen diozunean... gertzen dena oso gutxi da. Oso zaila izango da, baina etxean ere ezin zara geratu. Ahalegindu egin beharko da.

Momentuz terraza eta eramateko jatekoarekin hasi zarete.

Hori da genuen aukera bakarra. Terraza %50ean, eta ez dugu aukerarik jatetxean jaten emateko; horrek logistika aldetik asko mugatzen du. Modu sinple batean negozioa asmatu behar izan dugu zerbitzua eskaini ahal izateko, eta era berean, eskuak ez harrapatzeko. Oreka bilatzen saiatu gara, orekarik bada. Herriaren erantzuna ikusi beharko dugu. Nik ulertzen dut jendeak beldurra izan dezakeela. Gustura egoteko toki bat izan behar du terrazak, eta zu gustura ez bazara egongo, ez du zentzurik.

Lehen egunetik jendea dabil.

Oraindik egongo da zabalik dagoela jabetu ez den jendea, edo ea zer gertatzen den zain dagoena. Herriko adoretuenak bai gerturatu dira kafea hartzera, probatzera eta sentsazioak ikusi eta sentitzera. Hau berria da guztiontzat, eta ikusi egin beharko da nola doan kontua.

Janaria eramateko aukera jarri duzue. Zer espero duzue?

Zaila da jakitea. Momentuz zure herritik mugitzea galarazten du araudiak, beraz, mugatuta gaudela. Herrian lanean ari diren langileetara edo etxean janaria prestatzen nazkatu den horiengana bakarrik iritsi gaitezke. Lehen eguna da, eta ez dakit zer gertatu daitekeen.

Hiru bazkide eta bost langile zaretela aipatu duzu. Guztiontzako lanik ez dago.

Momentuz terrazarekin bakarrik lan egin daitekeen hamabost egun hauetan hirurok bakarrik ariko gara lanean. Behin jatetxea %50ean irekitzen dugunean langileen erdiak behintzat lanean hasi ahal izatea izango da helburua. Nik gogoan dut eta pentsatu nahi dut epe motz samar batean ireki ahal izango dugula, baina ezin da jakin.

Posible izango da?

Ez dakit. Jendearen erantzunaren arabera izango da. Beldurrik gabe eta aurrera egiteko jarraitarekin bada, funtzionatuko du. Baina maila guztietan sartuta, ostalaritza, dendak... etxean geratzen bagara, ez du funtzionatuko. Ateak ireki ahal izateko minimo batzuk behar ditugu; ez irabazteko, baizik eta gastuak tapatu ahal izateko. Minimo ho-

riek ematen ez badira, ezinezkoa izango da.

Taberna, jatetxea eta ostalua ere baduzue. Zein aurreikuspen?

Esaterako maiatzerako genituen jaunartze eta logeletako erreserba guztiak ezeztatuta daude. Denak atzera bota dira, eta inork ez du mantendu nahi izan gero beteko ez duen erreserbarik. Zerbait berria hasiko da, eta ikusi egin beharko da. Ostatuarena oraindik eta konplexuagoa ikusten dut. Logelak dira, eta kasu askotan, partekatuak jende askorekin; hogeit edo hogeita bi pertsona sartu daitezke. Oraintxe bertan ezin naiz hasi horretan pentsatzen. Burua joan egiten zait, eta ez dut konplikatu nahi. Poliki-poliki joango gara, eta esaten dituzten arauak betez. Gero ikusi beharko da ea arau horiek praktikoak eta emankorrak diren. Probatzen joan beharko gara aurrera, eta probatu ahala egin beharko dugu lana. Ulertzen dut inork ez dakiela zein den aukerarik onena. Ez da izango gogo, nahi eta ilusio faltagatik, baina gero ez badu funtzionatzen, bada ez du funtzionatuko; baina ahaleginduko gara, eta egin egingo dugu ahal dugun guztia.



E. MAIZ

Txabi Etxebarrietari giza eskubideak urratu zitzaizkiola aitor dezaten tramiteak abiatu ditu sendiak

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Bentaundin hil zuten Txabi Etxebarrieta, 1968ko ekainaren 7an, eta familiak uste du «menderatu eta armagabetu ondoren, exekutatu zutela». Gainera, jakinarazi dutenez, kasuaren inguruko egia argitzen lagundu dezakeen dokumentazioa lortu dute berriki.

Egiari Zor fundazioak ohar baten bitartez eman du ezagutzera izapideak abiatu dituela ETako militante izandakoaren familiak. «Eskaera honen helburua da aitortzea Txabi Etxebarrietak giza eskubideen urraketa jasan zuela, eta biktima gisa aitortua izan dadila, betiere Balorzio Batzordea osatzen duten adituek hala irizten badiote».

Motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematen die Eusko Legebiltzarraren uztailaren 28ko 12/2016 Legeak. Familiak trami-teei ekin die orain, «1968an jasan zuen giza eskubideen urraketa aitortua izan dadin».

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren

Memoriaren udal erretratuak txostenean jadanik «nahikoa argitu gabeko kasu» moduan dago jasota Etxebarrietarena.

ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Familiak aktiboki parte hartzen du Egiari Zor fundazioaren dinamikan, estatuen indarkeria jasan duten biktimen eskubideen defentsan lan eginez. Fundazioa-

ren bidez jakinarazi du, halaber, orain arte ezezaguna zen dokumentazio ofiziala eskuratu ahal izan duela, «kasua argitzen lagundu dezakeena».

Duela bi urte 1968-2018 *Begirada bat askatasunera* dinamika abiatu zuen Etxebarrieta Memoria Elkarteak, eta besteak beste, Tolosan ekitaldia antolatu zuen 2018ko ekainaren 2an.

Aire kutsadura murriztu egin da

Trafikoaren jaitsierarekin, Tolosaldean nitrogeno oxidoaren kontzentrazioa gutxienez %25ean jaitsi dela azaldu dute Eguzki talde ekologistatik

Imanol Garcia Landa

Airearen kutsadura konfinamendu garaian jaitsi egin dela azaldu dute Eguzki talde ekologistatik. Egoera honetan herritar gehien mugimenduak murriztuta egon dira eta hainbatean horrela jarraitzen du. Trafikoa asko murriztu da, beraz, eta hainbat lantegi itxita egon dira aldi batez, eta beste hainbat oso maila baxuan lanean. «Herrietan dauden neurgailuetan nitrogeno oxidoari begiratu behar zaio», esan du Garikoitz Plazaola Eguzki taldeko kideak. «Izan ere, nitrogeno konposatuak, eta bereziki nitrogeno oxidoa, dira garraioek sortzen duten kutsagai garrantzitsuenetakoa eta ugarienetakoa».

Donostian %49an jaitsi da apirilaren bukaeran nitrogeno oxidoaren kontzentrazioa. «Tolosaldeko kasuan, ez da zehazki neurtzen kontzentrazio totala, baina esan daiteke gutxienez %25-30ean jaitsi dela nitrogeno oxidoaren kontzentrazioa konfinamendua luzatzen joan den heinean», azaldu du Plazaolak. «Hasieran gutxiago, eta orain apirila bukaera aldera gehiago gertatu da». Aurreko urteko data berarekin, zein aurreko hilabete-koarekin alderatuta ere murriztu egin dela dio.

Partikulei dagokionez, ez da izan hain nabarmena beherakada. «PM_{2,5}eko neurgailuan atzeman da beherakada bat, eta PM₁₀ean askoz gutxiago», zehaztu du Plazaolak. «Izan ere, kutsaduraz hitz egitean ez da trafikoa eta industria jarduera bakarrik kontuan hartzen. PMren kasuan partikulak neurtzen direnez, naturan ere baditugu beste mota batetakoak. Orain, udaberrian, oso ugaria izaten da polena. Ondorioz, kutsadura atmosferikoari begira, datuak distortsionatu egin daitezke pixka bat». Partikulei dagokionez, polena zein Saharatik haize boladek ekartzen dituzten hondar aleak izan daitezkeela azaldu du.

Garraio publikoa erabiltzeko baldintzak gogortzeak, epe labur-ertainera kutsadura datua handitzea ekar dezake. «Covid-19aren egoerak ekarri duena da

segurtasun neurriak handitu beharra, garraio publikoa ingurune arriskutsutzat hartzea, leku txiki-jendea ugari elkartzen delako», esan du Plazaolak. «Horrek ekarri dezake pertsona batzuk lanera joateko orain ibilgailu pribatua erabiltzea erabakitzea, aurretik garraio publikoa erabiltzen zutenean. Beraz, trafiko igoera bat ekarri dezake».

Horren aurrean Eguzkitik espero dute agintariek «dagozkien kanpainak» egitea, «alegia, informazio ona eta egokia emateko». Plazaolak uste du askotan ez dela oso informazio pedagogikoa ematen: «Agintariek benetan zehazten joatea, oraindik ez dutelako garbi, zenbaterainokoa izan daitekeen arriskutsua edo ez garraio publikoa erabiltzea, eta neurri horiek guztiak kontuan hartuta garraio publiko egoki bat eta ikuspegi sanitario-tik ez kutsakor bat izatea. Hemendik aurrera gai hauetan ibiltzen garenoi geratzen zaigun lanetako bat izango da hori, bereziki agintariei».

«SAKONEKO HAUSNARKETA»

Kutsadura jaitsi izanak «sakoneko hausnarketa» uzten duela dio Plazaolak, eta osasun larrialdia iritsi aurretik, ingurumenaren alorrean hizpide zen gai nagusia larrialdi klimatikoa zela ekarri



Tolosako Rondilla kalean, larunbat batean, ia trafikorik ez. J. MIRANDA

du gogora. «Lurraren berotze efektuak eta horrek sortu ditza-keen aldaketa posible guztiez hitz egiten ari ginen, eta gizakiak eragindako kutsadura murriztu beharraz», esan du Eguzkiko kideak. «Kasu honetan garbi gertatu da, baten batek garbi ez bazuen ere, gure jarduerak benetan kutsadura ugaritu egiten duela era nabarmenean, eta, bestetik, neurri egokiak hartzen baditugu, eta bai administrazioak eta

herritarrak erabiltzaile gisa kontzientziazten bagara, egoerari buelta emateko bidean jartzea askoz errazagoa izan daitekeela».

Gobernuek egindako mundu mailako bileretan neurri murriztaileak hartu izan dituztela, baina gero praktikara eramateko «zailtasunak» ikusten zirela edo «kasu askotan borondate falta ere bai», zehaztu du Plazaolak. «Orain ikusi dugu neurriak har-

tuz gero emaitzak lortu daitezkeela. Beraz, jar gaitzen lanean neurri horiek hartzeko. Horrek ez du esan nahi orain mundu guztiak etxean geratu behar duenik, baina bai garraioa modu arrazional batean erabili behar dugula, kolektiboa zein banakakoa, herri eta hiriak era egokian antolatu behar ditugula garraioaren premia murriztu aldera».

Larrialdi klimatikoari «benetako erantzun egoki bat» eman nahi bada, neurri horiekin aurrera egin behar dela gaineratu du. «Hobe da bai ikuspegi ekonomiko-tik, bai osasun ikuspegitik eta bai ingurumen ikuspegitik, arazoak etorri aurretik irtenbideak ematea. Larrialdi klimatikoarena gainean dugu, eta zenbat eta beranduago hartu erabakiak eta pausoak eman, orduan eta arrisku gehiago dugu ezinezko puntura iristeko, jada hortik gertu ez bagaude behintzat».

Prebentzioaren alde egin du Plazaolak, eta Zaldibarko zabor-tegiaren arazoa konpontzeko Eusko Jaurlaritza jartzen ari den dirua ekarri du gogora: «Ondoren hartu behar diren neurriak bai izaten direla garestiak, ikuspegi guztietatik. Aurretik hartzen direnak, nahiz eta garestiak iruditu, ziur askoz merkeagoak direla». Lehenetsunak zehaztea dela gakoa gaineratu du eta, adibide moduan, galdera bat egin du: «Zein da lehentasuna, garraiobideak azkartzea edo gure osasuna eta benetako etorkizuna bermatzea?».

Hondakin datuekin, «harrituta»

I. Garcia Landa

Tolosaldean, eta oro har Gipuzkoan, konfinamendu garaian izan diren hondakinen bilketaren datuekin «harrituta» daudela azaldu dute Eguzkitik. «Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Ingurumen diputatuak adierazi duenez, Gipuzkoan, konfinamendu aldian, hiri hondakin kopurua %6,7 handitu da», azaldu du Plazaolak. Tolosaldeko kasuan, mankomunitateak eman dituen datuak martxoaren bigarren hamabostaldikoak dira, aurreko urteko epe bereko datuekin alderatuta. Orokorrean, %7,4 igo da hondakin kopurua: erre-

fusan %7a, organikoan %2a, ontzi arinetan %18a, eta paperean %16a. Kartoiaren datuak egin du behera, %34an. «Horren arrazoia komertzioak itxita egon direla da, eta, beraz, ez dela horietatik kartoirik bildu», esan du Plazaolak. Gaikako bilketaren portzentajea ia ez da aldatu, hamabostaldi horretarako aurtengoa %63,74 izan baita, iazkoa baino %0,15 gehiago.

Harrituta egoteko argudioen artean, batetik, aurreko ekonomi krisian gertatu zen gaietako bat hondakinen gutxitzea izan zela azaldu du Plazaolak. Bestetik, konfinamendu garaian jende ugari egon dela etxean, super-

merkatuetan lehentasunezko produktuak ez direnak ezin izan direla erosi edota turismo-rik ez dela egon ekarri du gogora. «Beste lurralde batzuetan eman dituzten datuei begiratu, gutxitu egin da hondakinen kopurua. Esaterako, Kanariar Uharteetan %25a jaitsi da, logikoa dena turismoak han duen garrantziarengatik. Valentzian %23 inguru jaitsi da, Madrilén ia %20a, Bartzelonan eta inguruko herriak hartuta %17a inguru... Euskal Herrira etorrira, Bilbon martxo-rako emandako datua %12ko murriztu dela da. Beraz, zer gertatu da Gipuzkoan?».

Eguzkitik ez dutela oraingoz

erantzunik dio Plazaolak. Apirilean jasotako datuekin zer gertatzen den ere ikusi egin beharko dela gaineratu du. «Hori bai, ez badago distortsiorako daturik eta martxoko datuak errealek badira, zer bait ez gara ari batere ondo egiten. Egon garen egoeran egonda, hondakinen kopurua igotzeko gai izan bagara, zer begiratu badugu», zehaztu du Plazaolak, eta eskaera bat egin die herritarrei: «Kontziente izatea zer kontsumitzen dugun, eta beharrezkoak bakarrik diren produktuak erostez aparte, behin hondakinak sortzen direnean horiek ahalik eta ondoen kudeatzen saiatzea».

Mikel Arruabarrenak ordezkatu du Ander Avellaneda Tolosa CF-n

Hirugarren Mailako futbol taldearen entrenatzaile berria da Arruabarrena; Avellaneda zazpi urtez egon da taldean, azken hiruak lehen entrenatzaile bezala

Erredakzioa Tolosa

Mikel Arruabarrena futbolari ohi tolosarra izango da Tolosa CF-ko Hirugarren Mailako futbol taldearen entrenatzaile berria, eta klubeko Futbol Errendimenduzko Koordinatzailearen ardura izaten jarraituko du. Ander Avellaneda ordezkatu du aulkian. Arruabarrenak sare sozialen bitartez mezua zabaldu du eta lehenik eta behin eskerrak eman dizkio klubari aukera eskaintzeagatik. «Momentu berezia» dela aitortu du. Bere txiki-txikitako taldea izan dela ekarri du gogora, eta bertan hasi zela futbolearen.

Dagoeneko lanean hasia da, eta plangintza egiten hasita dauka, «ahalik eta talderik onena osatu eta lehiakorrena izateko». Tolosa hirugarren mailan egotea dute helburu. «Denon indarra, ahalegina eta gogoarekin uste dut lortuko dugula», esan du.



Arruabarrena eta Avellaneda, Kopako kanporaketaren aurkezpenean. I.G.L.

Ander Avellaneda zazpi urte zeramatzan mutilen lehen taldean: urtebete jokalar bezala, hiru urte entrenatzaile laguntzaile eta beste hiru lehenengo entrenatzaile bezala. Klubak urte horietan egin duen lana eskertu nahi izan dio ohar bidez: «Momentu onak eta txarrak bizi izan

ditugu, baina orain onak bakarrik ditugu gogoan: Hirugarren Mailara igotakoa, Errege Kopako kanporaketak (bereziki Valladoliden aurkakoa), Azkoitia lortutako garaipena panenka estiloan zut botatutako penaltia esker eta ezkutuari muxuka...».

Avellaneda berak sare sozia-

letan eman du erabakiaren berri eta aitortu du Berazubiko harmailetan jarraitzaile bat izango duela beti taldeak. Klubarekin izandako lorpenak zerrendatu ditu, «penarekin bada ere», zikloa ixteko unea iritsi zaiola adierazi du, erronka berriei ekin ahal izateko. Tolosa CF-ko orain arteko entrenatzaileak gogoan izan ditu bere talde teknikoko ki-deak eta baita jokalaria ere, «arrakasta guztien protagonistak» izan direla esanez.

Hiru urteotan bere buruari jarri zizkion helburuak gogoan hartu ditu Avellaneda agur oharrean: «Hirugarren Mailara igotzea, ondoren kategoria mantentzea eta entrenamendu eta partida bakoitzean jokalaria ilusioaz kutsatzea, konprometituak eta adeitsuak izan zitezen. Zelaitik kanpora eta zela barruan familia bat osatu nahi nuen». Asmo horiek bete dituela uste du Avellaneda.

Uztaileko lehen asteburuan egingo litzateke ETE ligako lehen estropada

Erredakzioa

KAE Kantauriko Arraun Elkarteak prest du jada bere bi ligetako eta ETE Emakumezkoen Trainerruen Elkarteak aurtengo lehia-keta sistema, baita segurtasun protokoloa ere. TAEko Tolosaldea traineruak ETE ligan parte hartzen du.

KAEk zehaztu ditu hiru ligetako estropaden baldintzak: bate-tik, uztaileko lehen asteburuan hasiko lirateke hiru ligak, betiere osasun eta segurtasun baldintzak betez gero; bestetik, astero estropada bakarra jokatu litzateke, eta egun eta toki berean jokatu lirateke hiru ligetakoak, bederatzi guztira, eta hiru eremu finkotan: Castro Urdiales (Espainia), Getaria eta Pasaia (Gipuzkoa); horrez gain, liga balekoa izateko, gutxienez sei estropada jokatu beharko lirateke; bestalde, liga berean bi klubek uko egin ez gero lehiatzen jarraitzeari — koronabirusagatik positiboak daudelako —, liga hori bertan beharera geratuko litzateke.

Hilberriak eta urteurrenak

Atarian jarrita
Gipuzkoako
2 Hitzetan
DOAN

ESKELAK •
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte
hartzen ditugu



Juanjo Iztueta Mendizabal

"BIOSOLA"

- Goian bego -

Lanak oraintxe zeneuzkanean
ia hartuta mende
utzi gaituzu ustekabe
lore, ez tien artean.
Elkarrekin ttiki-ttikitatik
ibiliak jolasean,
laguntzeko beti prest zeundena
apal-apal isilean,
zure itzala izango dugu
argitasuna bidean.

HIRE KUADRILLAKO LAGUNAK

ZALDIBIAN, 2020ko maiatzaren 12an



Angel Mendigain Bengoetxea

2020ko maiatzaren 10ean hil zen,
51 urte zituela.

Hire lankideak

IBARRA-LIZARTZAN, 2020ko maiatzaren 11n



Joxe Soroa Ibarluzea

- Goian Bego -

Zure adiorik gabeko agurrak
gure irrifarra du itzali
gure ganako beti izan duzu
irrifarra ezpainetan
irudi hori gordeko dugu
beti gure barrenetan
ez adiorik gero arte baizik
Betikoak

TOLOSAN, 2020ko maiatzaren 11n



Joxe Soroa Ibarluzea

Insaluseko delegatua

Sindikatuan zure hutsunea nabaritutako dugu.
Agur eta ohore Joxe.

LAB Tolosaldea



TOLOSAN, 2020ko maiatzaren 11n



Joxe Soroa Ibarluzea

Elkartan ikusiko gitxoalakoan belaxe,
baina, ez genin espero hauxe,
Hire irrifar gozo horrek
gure bihotzetan segiko dik Joxe

Lizartzako Txirrita Elkartea



LIZARTZAN, 2020ko maiatzaren 11n



ASTEARTEA, 2020KO MAIATZAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 12

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berriak, Amaia Arranz arkeobotanikariaren tarte, Alain Rekondoren telesail eta pelikula gomendioak
11:00. Eutsi Goiari. Tolosaldeko kirolei buruzko saioa.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Kantazgora. Eskualdeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Aran-txa Orbegozo)
11:30. Gaurkoan Tolosalde
12:00. Etxean bai... Geldirik ez!
12:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!
13:30. Gaurkoan Tolosalde
17:00. Adinberri
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Herri Urrats 2020, etxean

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. J.M. Etxebes-te. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Laramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro nahiko lasaia izango dugu. Goizean oraindik hodei gune batzuk izango ditugu, baina, apenas egingo duen euririk. Arratsaldean ostarteak zabalduko dira. Tenperatura maximoa 16-17 graduan kokatuko da.

Bihar. Giro iluna izango dugu. Hodeitza sartuko da, eta euria utziko dute, batez ere goizean eta arratsaldeko lehen orduan. Tenperaturak 15-17 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

'Ataria irratiak' ohiko jardunari ekin dio

Aste honetan hasi da eskualdeko euskarazko irratiak ohiko saioekin; entzuleen mezuak 687 41 00 33 zenbakira bidali daitezke

Erredakzioa

Egoerak behartuta bere programazioa moldatu beharra izan du *Ataria irratiak* azken asteetan, eta aste honetatik aurrera, ohiko edukiez gozatu ahal da euskarazko Tolosaldeko irratiari.

Hala, ohi bezala, informazioa eta entretenimendua izango dira goizeko osagai nagusiak. 09:00etatik 12:00etara luzatuko da *Pasahitza* magazina, eta lehen orduan bidaiek eta azpieskualdeko albisteek izango dute lekua. Bigarren orduan, eguna kokatzearekin batera, eguneko protagonistaren elkarrizketaren txanda izango da. Aste honi dagokionez, bihar, 10:30ean, Olatz Peon Tolosako alkatearekin azken bi hilabeteen balantzea egingo dugu, etzi, ostegunean, Tenpora musika taldeko kideak



Saio batzuk ohiko moduan ezingo dira egin oraindik.

izango ditugu euren lan berriaz solasean, eta ostiralerako Garbiñe Biurrun epailearekin egin dugu hitzordua.

Solasaldiei dagokionez, asteazkenetan izango da helduen txanda, eta ostiralean 11etatik aurrera aztertuko dugu aktualitate politikoa. Literaturak, lehen sektoreak, ingurugiroak eta kirolak osatuko dute magazineko az-

ken ordua. Arratsaldeei dagokionez, Arrosa sareak ekoiztutako *Zebrabidea* magazina izango da ohiko moduan, eta gauean eta asteburuan, trikitia, bertsoak, erotika eta musika izango dira protagonista.

687 41 00 33 da *Ataria irrati*ko whatsapp zenbakia, agurrak, berriak edota aldarrikapenak zabaldu nahi dituen ororentzat.

ZORION AGURRA



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

12€
23€
33€
38€

Atarikideek

15,50€
31€
45€
51€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez